



ZUBIZARRETA

GARBITANIA ZERO ZABOR, S.M.

**Auditore independente batek egindako enpresa txiki
eta ertainen urteko kontuen ikuskaritza-txostena**

2022KO EKITALDIA



**AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO ENPRESA TXIKI ETA
ERTAINEN URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA**

**GARBITANIA ZERO ZABOR, S.M. -ko bazkideei,
Zuzendaritzaren aginduta:**

Iritzia

GARBITANTA ZERO ZABOR, S.M. (aurrerantzean, Sozietatea) enpresa txiki eta ertainen (ETE) urteko kontuak ikuskatu ditugu. ETE-ko urteko kontu hauek, 2022ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak, eta memoriak (denak ETE) osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako ETE-en urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2022ko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2. oharrean adierazten dena), eta, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren arautegia jarraituz egin dugu. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak, "ETE-en urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak" atalean zehazten dira.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako ETE-en urteko kontuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen ikuskaritzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da inongo egoerarik gertatu aipatutako araudi-erregulatuzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen.

Lortutako ikuskaritza ebidentziak gure ikuskaritza iritzirako nahikoa eta egokia den oinarria ematen digula deritzogu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Gure iritzi profesionalaren arabera, ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak ekitaldi honetako ETE-en urteko kontuen ikuskaritzan hutsegite garrantzitsuak egoteko arrisku esanguratsutzat hartutakoak dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan eta ETE-en urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik ematen.



Diru-sarrereren aitortpena

Sozietatearen diru-sarrerak, batez ere, Gipuzkoako hiru udaletako hiri-hondakinak biltzeko eta kaleak garbitzeko zerbitzuei dagozkie. Negozio-zifraren zenbateko garbia 4.496 mila eurokoa da (3.947 mila eurokoa 2021eko ekitaldian), eta galdu-irabazien kontuko zifrarik esanguratsuena da; beraz, akats materiala eragiteko arrisku-eremu potentzialtzat dugu.

Burututako ikuskaritza-prozedura nagusiek jasotzen zituzten honako alderdi hauek: diru-sarrereren egokitasuna egiaztatzea, Sozietateak diru-sarrerak aitortzeko aplikatutako politikak ulertzea, kontratuak agiri bidez egiaztatzea, itxieran bezeroen saldoak berrestea eta kobratu beharreko kontuen antzintasuna aztertzea, sortzapenaren kontabilitate-printzipioak behar bezala aplikatzea, eta eragiketak eteteko prozeduren burutzea.

ETE-en urteko kontuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako ETE-en urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz eta baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik gabeko ETE-en urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokia den barne kontrola ere.

ETE-en urteko kontuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa moduan jarraitzeko duen gaitasuna balioztatzea da, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziz eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; administratzaileek Sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean edo beste aukera errealistarik ez dagoenean izan ezik.

ETE-en urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak

Gure helburuak hauek dira: ETE-en urteko kontuek, haien osotasunean hartuz, iruzurrengatik edota errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna ziurtasun maila altua da, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, ETE-en urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo dutela aurreikusten bada.



Espanian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren araudia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- ETE-en urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreratik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere, iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, Sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean ETE-en urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar izaten dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izateari utz diezaioke.
- ETE-en urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Sozietateko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritzaren irismena eta egite datak, eta ikuskaritzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.



ZUBIZARRETA

Administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo ETE-en urteko kontuen ikuskaritzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.

ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L.
(ROACen S-0455 zenbakiaz inskribatutako Sozietatea)

Izp.: Xabier Esteban Hernández
(ROACen 23625 zenbakiaz inskribatuta)
(BAZKIDEA)

Donostian, 2023ko apirilaren 3a



URTEKO KONTUAK
GARBITANIA ZERO ZABOR, S.M.
B75024182

EKITALDIA: 2022
Hernanin, 2023ko martxoaren 31n



AURKIBIDEA

1. OHARRA	SOZIJATEAREN JARDUERA	1
2. OHARRA	URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIA	1
	2.1. Irudi zehatza	1
	2.2. Aplikatutako kontabilitate-printzipio ez nahitaezkoak	2
	2.3. Balioztapenaren alde kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena	2
	2.4. Informazioa alderatzea	2
	2.5. Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak	2
	2.6. Irizpide kontabletan aldaketak	2
	2.7. Erruen zuzenketa	2
3. OHARRA	EMAITZEN APLIKAZIOA	3
	3.1. Emaitzen banaketaren proposamena	3
	3.2. Konturako dibidenduen banaketa	3
4. OHARRA	BALORAZIO ETA ERREGISTRO ARAUAK	3
	4.1. Ibilgetu ukiezina	3
	4.2. Ibilgetu materiala	3
	4.3. Aktibo finantzario eta pasibo finantzarioak	4
	4.4. Enpresaren esku dauden kapital propioaren baloreak	5
	4.5. Mozkinen gaineko zerga	5
	4.6. Sarrerak eta gastuak	5
	4.7. Hornidurak eta kontingentziak	6
	4.8. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	6
	4.9. Balio erantsiaren gaineko zerga	6
	4.10. Ingurumen-izatasuneko ondare osagaia	6
	4.11. Loturadun alderdien arteko transakzioak	6
5. OHARRA	IBILGATU MATERIAL ETA UKIEZINA	7
	5.1. Ibilgetu material eta ukiezinen mugimenduen egoera	7
6. OHARRA	FINANTZA AKTIBOAK	8
7. OHARRA	FINANTZA PASIBOAK	10
8. OHARRA	FONDO PROPIOAK	11
9. OHARRA	EGOERA FISKALA	11
	9.1. Mozkinen gaineko zerga	11
10. OHARRA	SARRERAK ETA GASTUAK	12
11. OHARRA	DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	12
12. OHARRA	TALDEKO ENPRESEKIN DIREN SALDOAK ETA TRANSAKZIOAK	13
13. OHARRA	BESTE INFORMAZIOA	14
	13.1. Batez besteko langile kopurua, kategorien arabera adierazita	14
	13.2. Balantzean ageri ez diren beste adostasunak	14
14. OHARRA	INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA	14
15. OHARRA	ARAU KONTABLE BERRIETARA EGOKITZEKO TRANTSIZIOTIK ERATORRITAKOAK	14
16. OHARRA	ARAU KONTABLE BERRIETARA EGOKITZEKO TRANTSIZIOTIK ERATORRITAKOAK	14

ERANSKINAK:

ETE-en Egoera Balantzea
 ETE-en Galdu irabazien kontua
 Ratio ekonomiko eta finantzarioak
 2022ko amortizazioen xehetasuna

1. OHARRA SOZIEATEAREN JARDUERA

Memoria honen objektu den Sozietatearen datuak honako hauek dira:

IFZ: B75024182
Sozietatearen izena: GARBITANIA ZERO ZABOR, S.M.
Helbidea: LASTAOLA POLIGONOA 3 A12 ERAIKINA ERREÑOTZU BIDEA
Posta kodea: 20120
Herria: HERNANI
Probintzia: GIPIZKOA

Sozietatearen helburu soziala eta jarduera nagusiak ondoren zehaztuta azaltzen dira:

Sozietatea, Usurbilen eratu zen eta sorrera eskritoretan jasotzen den gisan honako hau du helburu sozialtzat: "Hiri hondakinak eta ateragarriak diren hondakinak gaika biltzea, kudeatzea, aprobetxatzea eta tratatzea hala badagokio, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapen eta europarrak betez". Halere, 2018ko apirilaren 27an burutu Batzar Nagusian, Hernaniko eta Usurbilgo udaletako aldeko bozkekin eta Astigarragako Udalaren abstentzioarekin sorrera eskriturako 2. artikuluan honako jarduera berria sartzea adostu zen:

"Bide publiko, lorategi eta kale-garbiketako zerbitzuak"

Zerbitzuak horiek izanik, sozietatearen helburu nagusia honako hau da: Hondakin sorkuntza ahalik eta gehien murriztea, ahalik eta gehien birziklatzea, bilketa selektiboa ahalik eta gehien sustatzea arlo horretan indarrean dauden xedapenetan zehatutakoak hobetzeko; horretarako, bi zerbitzu horien koordinazioa, mota guztietako aholku teknikoak eta bilketa, kudeaketa eta tratamendu sistema espezifikokoak inplementatzeko bitartekoak eta moduak aztertuko dira.

<u>Epigrafea</u>	<u>Jarduera</u>
E-9212	Zabor eta hondakinen bilketa zerbitzua (CNAE 3811)
E-9211	Kale-garbiketa (CNAE 8129)

Egun, sozietatearen helbide soziala Lastaola Poligonoa 3, A12 eraikina, Ereñotzu Auzoa (Hernani) helbideratuta dago, Garbitaniak PEAN S.A. enpresarekin sinatutako alokairu kontratuari esker. Kale-garbiketako zerbitzua kudeatzen den bulegoa Akarregi poligonoa 13. (Hernani) helbidean aurkitzen da, Garbitaniak Grúas Zapirain S.L. enpresarekin sinatutako alokairu kontratuari esker.

Informazio bulegoetako dagokienez, Usurbilgo "Atez ateko informazio bulegoa" 2015eko azaroaz geroztik Usurbilgo Udalean bertan kokatzen da (Plz. Jose Martin Sagardia z/g). Hernaniko "Atez ateko informazio bulegoari" dagokionez, honako helbidean kokatzen da: Gudarien plaza 1. A. Hernaniko poligonoetako enpresei zerbitzua ematen dien "informazio bulegoaren" kokapena Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu Auzoa (Hernani) helbidean kokatzen da. Amaitzeko, Astigarragako "Hondakinen informazio-bulegoa" bertako Udalean dago, Foru Enparantza, 13 helbidean.

2. OHARRA URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIA

2.1. Irudi zehatza

Urteko kontuak 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza islatzen dute, eta indarrean dagoen merkataritza-legediaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauen arabera aurkezten dira.

Irudi zehatza adierazteko kontabilitate arloko legezko xedapenik ez betetzeko aparteko arrazoirik ez da existitzen.

Memorian informazio osagarririk sartzeko arrazoirik ez da irudi zehatza agertzeko nahiko baita legezko xedapenen aplikazioa.

2021eko abenduaren 31n mugaeguneratutako ekitaldiko kontuak Sozietateak 2022ko apirilaren 1ean egindako Batzar Nagusian onartu ziren.

2022ko ekitaldiko urteko kontuak Batzar Nagusiak oraindik onartzeko badaude ere, Sozietateko Administrazioaileek ez dute uste aldaketa aipagarriak egongo denik onarpen horren ondorioz.

2.2. Aplikatutako kontabilitate-printzipio ez nahitaezkoak

Sozietatearen ekitaldian, Merkataritza Kodearen eta Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorraren arabera nahitaezkoak diren kontabilitate-printzipioak baino ez dira aplikatu, hau da, funtzionamenduan dagoen enpresa, sortzapena, uniformetasuna, zuhurtasuna, konpentsaziorik ez eta garrantzi erlatiboa. Urteko kontu hauek egitean aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta -irizpideak memoria honen 4. oharrean azaltzen dira.

2.3. Balioztapenaren alde kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Urteko kontu hauek prestatzerakoan, Sozietatearen administrazioaileek zenbatespen batzuk erabili izan dituzte balantzearen eta galdu-irabazien kontuko partida jakin batzuk baloratzeko. Zenbatespen horiek, funtsean, aktibo material eta immaterialei esleitutako bizitza erabilgarriarekin, aktibo jakin batzuen narriaduragatik izan daitezkeen galeren ebaluazioarekin eta zenbait finantza-tresnen merkatu-balioarekin loturik daude. Zenbatespen horiek, gainera, urteko kontuak egitean eskura zen informaziorik onena kontuan hartuz egin dira, eta baliteke geroko gertaerek horiek aldatzera behartzea ondorengo ekitaldietan. Hala izatekotan, era prospektiboan egingo litzateke, zenbatespen horien aldaketan ondorioak etorkizunean aintzat hartuz dagozkien galdu-irabazien kontuetan.

2.4. Informazioa alderatzea

2022ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, aurreko ekitaldiko urteko kontuak burutzeko erabili ziren printzipio eta balorazio-arau berberak erabili dira.

2.5. Hainbat kontusailetan jasotako elementuak

Ondareko elementu oro balantzeko kontusail bakarrean jasota dago.

2.6. Irizpide kontableetan aldaketak

Ekitaldian ez da irizpide kontableen aldaketarengatik inolako doikuntzarik burutu.

2.7. Erruen zuzenketa

2015eko ekainaren 23an, kontsulta bat egin zitzaion Gipuzkoako Foru Ogasunari azaroaren 27ko 28/2014 Estatuko Legearen 7.8 artikulua aplikazioari buruz. Kontsulta hori 2015eko urriaren 1ean argitu zen, non adierazten baitzen Sozietateak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera bazkideei egindako hondakinak biiltzeko zerbitzua ez zegoela zergapean. Era berean, kenkarirako eskubidearen murrizketa ezarri zen, 93. artikuluko 5. puntuarekin bat.

Kontsulta 2015eko abenduan ebatzi ondoren, BEZa oker aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa itzultzeko prozedura ezarri zen, bai eta bidegabeki aplikatutako kenkariei zegokion likidazioa ere. Horiek 2016ko urtarrietik aurrera egikaritu ziren, eta, beraz, ekitaldi horretan kontabilizatu ziren.

2022 eta 2021 ekitaldietan ez da zuzenketarik egon.

3. OHARRA EMAITZEN APLIKAZIOA

3.1. Emaizten banaketaren proposamena, jarraian adierazitako eskemaren arabera:

BANAKETARAKO OINARRIA		Egungo ekitaldia
Galdu irabazien kontuaren saldoa (MOZKINAK)	91000	15.136,92
BANAKETARAKO OINARRIA GUZTIRA = APLIKAZIO GUZTIRA	91004	15.136,92

APLIKAZIOA		Egungo ekitaldia
Borondatezko erreserbak	91008	15.136,92
APLIKAZIO GUZTIRA = BANAKETARAKO OINARRIA GUZTIRA	91012	15.136,92

3.2. Konturako dibidenduen banaketa

Egungo ekitaldian ez da konturako dibidenduen banaketarik adostu.

4. OHARRA BALORAZIO ETA ERREGISTRO ARAUAK

Hauek dira partida bakoitzari aplikatutako kontabilitate-irizpideak:

4.1. Ibilgetu ukiezina

Informatika-aplikazioak: Erakundea kudeatzeko oinarritzko informatika-programak erosteko eta garatzeko kostuei dagokie. Informatika-aplikazioen amortizazioa bost urteko epean egiten da linealki.

4.2. Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala erosketakostuaren arabera baloratuta dago, dagozkion amortizazio metatua eta izan dituen narriaduraren ondoriozko galerak kenduta.

Elementu bakoitza erosteko ordaindutako prezioaz gain, aktiboa erosteari edo fabrikatzeari zuzenean egotz lekizkiokeen eraikuntza-aldian sortutako finantza-gastuak ere kostuan sartuko lirateke, baldin eta urtebetetik gorako aldia behar badute erabiltzeko baldintzetan egoteko. 2022ko ekitaldian zehar ez da zenbatekorik aktibatu kontzeptu honetan.

Elementu osoak ordezkatzera edo berritzea ondasunaren iraunaldia areagotuko dutenean, ondasunaren produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa zabaltzeko, modernizatzeko edo hobetzeko kostuak, besteak beste, ibilgetze materialaren zenbateko gehikuntza gisa kontabilizatuko dira, ordezkatu edo berritutako elementuen kontabilitate-erretiratzearekin batera, mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko aldi behingo gastuak, aldiz, sortzen diren ekitaldiko kostu gisa egotziko dira emaitzetara, sortzapenaren printzipioari jarraituz. Produktibitatea ahalmena edo eraginkortasuna gehitzea edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatzea dakarten zabaltze, modernizatze edo hobetze kostuak dagozkien ondasunen kostu handitze gisa kapitalizatzen dira. Konpontzeko eta mantentzeko gastuak, berriz, egiten diren ekitaldiko emaitzen kargura erregistratzen dira.

Amortizazioa kalkulatzeko, metodo lineala aplikatzen da aktiboen erosketakostuen gainean, horien hondar-balioa kenduta. Aktibo materialen amortizazioaren kontzeptupeko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontuan kontrapartida eginez gauzatzen dira eta, funtsean, elementu guztien batez besteko balio-bizitza zenbatetsiko urteen arabera zehaztutako amortizazio-ehunekoen balioak dira.

Amortizazioak kalkulatzeko erabiliko epeen taula honako hau izan da:

	Urteak
- Eraikuntzak	50
- Erremintak, instalazioak eta altzariak	6-18
- Informazio-prozesuetarako ekipoa	4
- Beste ibilgetu materiala	6

Aktiboa besterendu edo erretiratzearen ondorioz sortutako irabazia edo galera salmentaren prezioaren eta liburuetan jasotako aktiboaren zenbatekoaren arteko diferentzia bezala kalkulatzen da eta galeren eta irabazien kontuan onartzen da.

Ibilgetu materialei aplikatutako zerga ez zuzenak (BEZ), erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren barne gehitu dira soilik ogasunetik zuzenean berreskuratu izan ezin direnean.

Hobekuntza handiekin erlazio naturiko kostuak ibilgetu materialaren zenbatekoa zehaztean kontutan hartuak izan dira. Hobekuntza kostu hauek gainontzeko elementuetatik aparteko moduan amortizatua izango da hobekuntza handia gertatu den denbora tartean zehar. Hobekuntza handi bat burutzean, beraren kostua ibilgetuaren balore kontablean sartuko da ordezkapen baten gisan, beti ere bere errekonozimendua emateko baldintzak bete badira.

4.3. Aktibo finantzario eta pasibo finantzarioak

Aktibo finantzario gisa honakoak onartu dira: dirua eskudirutan, beste enpresetako ondareen inguruko tresnak edo eskudirua edo trukean jasotako beste aktibo finantzarioen eskubide-kontraktualak. Era bereari egoera mesedegarrietan hirugarrenekin elkar-trukatutako aktibo edo pasibo finantzarioetatik eratorritako eskubide kontraktualak.

Aktibo finantzarioak, bere balorazioaren arabera honako kategorietan jasoak izan dira:

- Koste amortizatuko aktibo finantzarioak: Aktibo hauek, jatorria enpresaren produktuen salmentatik eta zerbitzua ematek eratorritako operazio komertzialetatik lortutako kredituek, eta bestetik, jatorri komertzialik ez duten eta bere kobrantzaren montua jakina edo zehazgarria den ondare tresna zein deribatuak ez diren aktibo finantzarioek osatzen dute. Aktibo hauek kostearen arabera baloratu dira; hau da transakzio kostua eta koste jatorra kontuan hartuta.
- Negoziazteko mantendutako aktibo finantzarioak: Bertan, epe laburrean saltzeko asmotan hartu diren edo sortu diren aktibo finantzarioak, edo epe laburrean irabaziak lortzeko finantza instrumentuz osatutako kartera barruko aktibo finantzarioak kontabilizatu dira. Finantza aktibo hauek euren kostuaren arabera baloratuak izari dira, hau da transakzio kostua eta koste jatorra kontuan hartuta.

Pasibo finantzarioak, bere balorazioaren arabera honako kategorietan jasoak izan dira:

- Koste amortizatuko pasibo finantzarioak: Pasibo hauen barruan Enpresa produktuen erosketa edo zerbitzuen jasotzetik sortutako operazio komertzialengatik eratorritako zorrak, eta bestetik instrumentu deribatuak jatorria ez duten operazio ez komertzialetatik eratorritako zorrak bildu dira. Pasibo hauek, hasiera batean, kostearen arabera baloratu dira, hau da transakzio kostua gehi balore jatorra.

Narriaduraren ondoriozko galeren balorazioa egiteko irizpideak finantza aktiboaren arabera izan da:

Koste amortizatuko aktibo finantzarioa: Ekitaldiaren amaieran, arriskuari dagokionez antzerako ezaugarri edo ezaugarri berdina duen aktibo finantzario batek edo aktibo finantzario talde batek, hasierako errekonozimendutik etorkizuneko fluxuen gutxitze bat suposatu dezakeen eta ondorioz narriadura suposatu duen ebidentzia objektiborik egon den ziurtatzen da. Narriadurarengatik sortutako galera liburuetan jasotako balore eta etorkizuneko fluxuen uneko balorearen arteko diferentzia gisa baloratuko da. Balio hau galdu irabazien kontuan jasotzen da, irabazi edo galera gisa.

Enpresak aktibo finantzarioak, osorik edo partzialki baja emango die eskubide kontraktualak amaitu edo lagatu egin direnean, betiere lagatzailea, aktiboak suposatu duen arrisku zein irabazietatik aparte denean. Aktiboaren baja burutu ez den lagapenetan, kasu horietan pasibo finantzarioak jasoko dira ordainetan.

Pasibo finantzarioei dagokienez obligazioa desagertzen denean emango zaie baja. Era berean etorkizunean berriro ere merkaturatzeko asmoa izanda ere bereganatutako pasibo finantzarioei baja emango zaie. Liburuetako balore eta benetan ordaindutakoaren arteko diferentzia, transakzio kostuak barne, berau gauzatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan jasoak izango dira.

4.4. Enpresaren esku dauden kapital propioaren baloreak

Enpresaren ondare propioaren instrumentuak, ondare garbiko fondo propio gisa jasoak izan dira. Ondare instrumentuekin burutu eragiketetatik eratorritako kostuak erreserben gutxitze gisa kontabilizatu da, baina bertan behera geratutako gastuak badira galdu irabazien kontuan sartu dira.

4.5. Mozkinen gaineko zerga

2022ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga indarreko urtarrilaren 17ko 2/2014 foru-araudiaren arabera likidatu da, bai eta zenbait tributu-arauren aldaketak sartzen dituen maiatzaren 10eko 1/2018 foru-araudiaren arabera ere.

Zerga geroratuaren aktiboak halakotzat hartu dira zuhertasun-printzipioarekin bat etorritik, enpresak aktibo horiek aplikatzea ahalbidetuko duten etorkizuneko irabazi fiskalak izatea litekeena izan den neurrian. Aurreko baldintza, oro har, betetzen bada, zerga geroratuagatiko aktibotzat hartu da honako kasu hauetan: denborazko diferentzia kengarrietan, ondorengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideetan, galera fiskaletan, eta fiskalki aplikatzeko geratu diren erabili gabeko kenkari eta bestelako abantaila fiskaletan.

Zerga geroratuaren aktiboak eta pasiboak, zehazki, itzultzeko unean espero ziren karga-tasen arabera baloratu dira, indarrean edo onartuta egon den eta ekitaldiaren itxiera-datan argitaratzeko dagoen araudiaren arabera, eta aktiboa edo pasiboa arrazionalki berreskuratzea edo ordaintzea aurreikusi den moduaren arabera.

4.6. Sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak enpresaren baliabideak handitzearen ondorioz aitortu dira, betiere haien zenbatekoa fidagarritasunez zehaztu ahal izan bada. Gastuak enpresaren baliabideak murriztearen ondorioz aitortu dira, betiere haien zenbatekoa ere fidagarritasunez baloratu edo estimatu ahal izan bada.

Zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak aintzatetsi dira transakzioaren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi daitekeenean, ekitaldia ixteko datan zerbitzua zein portzentajetan burutu den kontuan hartuta. Zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak soilik zenbatu dira, honako baldintza hauekin: diru-sarreraren zenbatekoa fidagarritasunez baloratu ahal izan denean, betiere enpresak transakzioaren onurak edo etekinak jaso baditu, transakzio hori ekitaldia ixtean fidagarritasunez baloratu ahal izan denean, eta, azkenik, prestazioan egindako kostuak eta egiteko geratzen direnak fidagarritasunez baloratu ahal izan direnean.

4.7. Hornidurak eta kontingentziak

Enpresak ez du inolako hornidurarik aplikatu indarrean dagoen araudian definitutako balizko kaudimengabezien ondoriozko kredituen nariaduragatik.

4.8. Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Diruzko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioan balioetsi dira.

4.9. Balio erantsiaren gaineke zerga

2015eko ekainaren 23an, kontsulta bat egin zitzaion Ogasunari azaroaren 27ko 28/2014 Estatuko Legearen 7.8 artikulua aplikazioari buruz. Kontsulta hori 2015eko urriaren 1ean argitu zen, non adierazten baitzen Sozietateak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera bazkideei egindako hondakinak biltzeko zerbitzua ez zegoela zergapean. Era berean, kenkarirako eskubidearen murrizketa ezarri zen, 93. artikuluko 5. puntuarekin bat.

Kontsulta 2015eko abenduan ebatzi ondoren, BEZa oker aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa itzultzeko prozedura ezarri zen, bai eta bidegabeki aplikatutako kenkari zegokion likidazioa ere. Horiek 2016ko urtarriletik aurrera egikaritu ziren, eta, beraz, ekitaldi horretan kontabilizatu ziren.

4.10. Ingurumen-izatasuneko ondare osagaiak

Administratzaileek baieztatu dute Sozietateak ez duela bere ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eraginik izan dezakeen ingurumen alorreko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, diru-hornidurarik edo kontingentziarik.

4.11. Loturadun alderdien arteko transakzioak

Urteko kontuak aurkeztearen ondorioetarako, ulertuko da beste enpresa bat taldeko kide dela biak kontrol-harreman baten bidez lotuta daudenean, Merkataritza Kodearen 42. sozietate-taldeentzat aurreikusitakoari jarraituz.

Loturadun alderdien arteko transakzioak, oro har, bere arrazoizko balioan balioesten dira hasieran. Adostutako prezioa eta arrazoizko balioa bat ez datozenean, diferentzia eragiketaren errealitate ekonomikoaren arabera erregistratuko da. Ondorengo balorazioa dagozkien arauetan aurreikusitakoaren arabera egiten da.

Horren haritik, loturadun alderditzat hartzen dira Usurbilgo Udala, Hernaniko Udala eta Astigarragako Udala.

5. OHARRA IBILGETU MATERIALA ETA UKIEZINAK

5.1. Ibilgetu material eta ukiezin mugimenduen egoera

Kontu desberdinetan, 2021 eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan izenburuko arlo bakoitzean metatutako hurrenez hurreneko amortizazioetan erregistratutako mugimenduak honakoak izan dira:

Mugimenduak	Ibilgetu ukiezina	ibilgetu materiala	Guztira
A) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	42.889,33	699.406,29	742.295,62
Gehikuntzak	7.290,25	---	7.290,25
Kenketak	---	---	---
B) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	50.179,58	699.406,29	749.585,87
C) 2022ko ekitaldiko hasierako saldoa	50.179,58	699.406,29	749.585,87
Gehikuntzak	26.898,30	53.293,81	80.192,11
Kenketak	---	---	---
D) 2022ko ekitaldiko amaierako saldoa	77.077,88	752.700,10	829.777,98
E) Amortizazio metatuaren hasierako saldoa 2021eko ekitaldiaren hasieran	18.463,71	536.702,22	555.165,93
Ekitaldiko zuzkidura	6.848,44	48.993,51	55.841,95
F) Amortizazio metatuaren amaierako saldoa 2021eko ekitaldiaren amaieran	25.312,15	585.695,73	611.007,88
G) Amortizazio metatuaren hasierako saldoa 2022ko ekitaldiaren hasieran	25.312,15	585.695,73	611.007,88
Ekitaldiko zuzkidura	9.199,37	33.472,18	42.671,55
H) Amortizazio metatuaren amaierako saldoa 2022ko ekitaldiaren amaieran	34.511,52	619.167,91	653.679,43
2022ko ekitaldiko amaierako saldo garbia	42.566,36	133.532,19	176.098,55

Erabat amortizatutako elementuen balioa:

Elementua	Erabat amortizatutako elementuen balioa
1	152.818,20
3	30.000,00
4	1.236,59
12	6.100,00
13	4.000,00
14	54.428,03
16	4.500,00
17	1.200,00
18	15.258,95
19	2.611,18
20	754,20
21	4.205,96
22	37.792,91
23	39.452,85
25	911,13
26	8.772,50
27	968,00
28	4.003,65
29	1.285,26
30	10.562,71
31	1.592,14
32	2.500,34
33	133,10

Elementua	Erabat amortizatutako elementuen balioa
34	1.860,98
35	712,05
36	302,02
37	3.227,49
38	740,39
39	2.212,09
40	15.874,72
44	135.520,00

Sozietateak ez du biziraupen mugagabeko ibilgetu ukiezinik.

6. OHARRA FINANTZA AKTIBOAK

Memoria honetako 4.3. atalean jasotzen diren erregistro eta balorazioa arauen arabera baloratutako finantza aktiboen 2021 eta 2022ko mugimenduak (taldeko, talde anitzeko eta kidetutako sozietateetako inbertsioak salbu) jarraian gehitzen den taulan jasotzen dira:

- a) Epe luzerako finantza aktiboak, taldeko, talde anitzeko eta kidetutako sozietateetako ondareetan inbertsioak salbu

		MOTAK			
		Ondareko tresnak	GUZTIRA	Ondareko tresnak	GUZTIRA
		2021	2021	2022	2022
Kosturako finantza aktiboak	9308	601,00	601,00	601,00	601,00
GUZTIRA	9305	601,00	601,00	601,00	601,00

- b) Epe laburrerako finantza aktiboak (taldeko, talde anitzeko eta kidetutako sozietateetako inbertsioak salbu):

		MOTAK			
		2021EKO EKITALDIA			
		Ondareko tresnak	Zorretan balore adierazleak	Hartzeoak eratorriak eta bestelakoak	GUZTIRA
		1	2	3	4
Negoziatzeko finantza aktiboak	9316	---	---	---	---
Koste amortizatuko finantza aktiboak	9317	---	---	797.443,60	797.443,60
Kosturako finantza aktiboak	9318	185.600,51	---	---	185.600,51
GUZTIRA	9315	185.600,51	---	797.443,60	983.044,11

		MOTAK			
		2022KO EKITALDIA			
	Ondareko tresnak	Zorretan balore adierazleak	Hartzekoak eratorriak eta bestelakoak	GUZTIRA	
	1	2	3	4	
Negoiazteko finantza aktiboak	9316	---	---	---	
Koste amortizatuko finantza aktiboak	9317		527.901,44	527.901,44	
Kosturako finantza aktiboak	9318	173.723,65	---	173.723,65	
GUZTIRA	9315	173.723,65	527.901,44	701.625,09	

2022. ekitaldian Oinarri Sgr-ko partizipazioak mantentzen dira.

Aktibo finantzario mota bakoitzeko arrazoizko balorearen aplikazioa eta kontuetan narriaduragatik sortutako mugimenduen bilakaera, ondorengo taulan jasotzen dira:

Arrazoizko balorearen baitan baloratutako aktibo finantzarioak

Arrazoizko balio gisa, merkatuan salmenta unean aktibo hauek zuten balorea hartu da.

		Arrazoizko balioaren arabera baloratutako aktibo finantzarioen kategoria			
	Galdutako irabazietan aldatetako suposatutako arrazoizko balioaren arabera aktibo finantzarioak	Negoiazteko mantendutako aktibo finantzarioak	Salmentarako aktibo finantzarioak	GUZTIRA	
	1	2	3	4	
Aurreko ekitaldi hasierako arrazoizko balioa	9340	185.645,86	---	---	
Aurreko ekitaldiaren galdutako irabazien kontuan erregistratutako arrazoizko balioaren bariazioa	9341	---	---	---	
Aurreko ekitaldi amaierako arrazoizko balioa	9343	185.645,86	---	185.645,86	
Egungo ekitaldiaren galdutako irabazien kontuan erregistratutako arrazoizko balioaren bariazioa	9341	(11.922,21)	---	(11.922,21)	
Egungo ekitaldi amaierako arrazoizko balioa	9343	173.723,65	---	173.723,65	

7. OHARRA FINANTZA PASIBOAK

Finantza pasibo ezberdinen gaineko mugimenduak

Memoria honetako 4.3. atalean jasotzen diren erregistro eta balorazioa arauen arabera baloratutako finantza pasiboen 2021 eta 2022ko mugimenduak jarraian gehitzen diren taulan jasotzen dira:

a) Epe laburrerako finantza pasiboak:

		MOTAK			
		2021EKO EKITALDIA			
		Kreditu- erakundeekiko zorrak	Obligazio eta beste balore negoziagarriak	Eratorkiak eta bestelakoak	GUZTIRA
		1	2	3	4
Koste amortizatuko finantza pasiboak	9414	---	---	253.116,92	253.116,92
GUZTIRA	9413	---	---	253.116,92	253.116,92

		MOTAK			
		2022KO EKITALDIA			
		Kreditu- erakundeekiko zorrak	Obligazio eta beste balore negoziagarriak	Eratorkiak eta bestelakoak	GUZTIRA
		1	2	3	4
Koste amortizatuko finantza pasiboak	9414	---	---	274.571,28	274.571,28
GUZTIRA	9413	---	---	274.571,28	274.571,28

Datozen bost urteetan epealdia amaitzen duten zorren kopurua, eta gainontzeko zorrak guztira ondorengo taulan jasotzen dira.

b) Egungo ekitaldian amaiera ekitaldiaren arabera zorrak

		Epemuga, urtetan						
		Bat	Bi	Hiru	Lau	Bost	5etik gora	GUZTIRA
		1	2	3	4	5	6	7
Beste zorrak	9422	6.619,42	---	---	---	---	---	6.619,42
Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	9425	267.951,86	---	---	---	---	---	267.951,86
Hornitzaileak		---	---	---	---	---	---	---
Bestelako hartzekodunak	9427	---	---	---	---	---	---	---
GUZTIRA	9429	274.571,28	---	---	---	---	---	274.571,28

8. OHARRA FONDO PROPIOAK

Hurrengo xehetasunean, enpresaren kapital sozialeko akzio edo partaidetza bakoitzaren kopurua eta balio nominala adierazten dira, moten arabera bereizita, bai eta horiei emandako eskubideak eta izan ditzaketen murrizketak ere:

Zenbakia	1-245	273-402	251-272/403-501
Hasierako kapitala	250.000,00 €	130.000,00 €	121.000,00 €
Balore nominala	1.000,00 €	1.000,00 €	1.000,00 €
Bozka eskubidea	% 49,90	% 25,95	% 24,15
Lehetasunak	Ez	Ez	Ez
Murrizketak	Batere ez	Batere ez	Batere ez
Ordaintzeke	Batere ez	Batere ez	Batere ez

9. OHARRA EGOERA FISKALA

Hona hemen Administrazio Publikoekin lotutako saldoen xehetasunak:

	2021	2022
AKTIBO EZ KORRONTEA	68,09	50.078,47
Foru Ogasuna, atxikipenak eta konturako ordainketak	68,09	78,47
Ogasun Publikoa, emandako dirulaguntzengatik zordun	---	50.000,00
PASIBO KORRONTEA	183.867,59	218.037,15
Foru Ogasuna, egindako atxikipenengatik hartzekodun	110.106,67	122.868,78
Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodunak	73.760,92	95.168,37

9.1. Mozkinen gaineko zerga

Ekitaldiko kontabilitate-emaizaren eta Sozietateen gaineko Zergaren oinarriaren arteko berdinkatzea honako hau da:

	Galdu irabazien kontua		Ondareari zuzenean esleitutako sarrerak eta irteerak	
	Gehikuntzak	Gutxitzeak	Gehikuntzak	Gutxitzeak
Ekitaldiko sarrera eta irteeren saldoa	15.136,92		---	
Sozietateen gaineko zerga				
Diferentzia iraunkorrak	---	15.136,92	---	---
Diferentzia iragankorrak:		(FA 2/2014 39.1 art)		
- jatorria ekitaldian	---	---	---	---
- jatorria aurreko ekitaldietan	---	---	---	---
Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	---	---	---	---
Zerga oinarria (emaitza fiskala)			---	

Sozietateen gaineko Zergaren esparruan 2014ko ekitalditik aurrera aplikatu beharreko zerga-araudiaren arabera, Sozietateak errentak ez integratzeko araubide berri bat du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 39. artikuluan arautua.

Sozietateak 128.955,21 euroko kenkariak aplikatu behar ditu, aurreko ekitaldietan sortutako mugekin (128.955,21 euro 2021ean).

Bestalde, 2022an eta 2021ean kapital higigarriaren etekinen gainean jasandako atxikipenen zenbatekoa 78,47 eta 68,09 eurokoa izan da.

Zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta agintaritza fiskalek berrikusi arte edo 4 urteko preskripzio-epea igaro arte.

Ez da hornidurarik ezarri etorkizunean sor litezkeen gertakari fisikaletarako, une honetan ezezagunak direlako eta, beraz, ezin direlako kuantifikatu; nolana ere, ez da pasibo gehigarri esanguratsurik eratorriko, erantsitako urteko kontuak indargabetu ditzaketarik.

10. OHARRA SARRERAK ETA GASTUA

2021eko eta 2022ko ekitaldietako diru-sarreraren eta gastuen mugimenduak taula honetan laburbiltzen dira:

Galdu irabazien kontuaren deskribapena		2021	2022
3. Ustiapeneko bestelako gastuak	95016	(849.852,55)	(1.008.652,46)
b) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	95018	(849.852,55)	(1.008.652,46)
5. Enpresaren jarduera normaletik kanpora lortutako emaitzak, "Bestelako emaitzak" partidan jasotakoak	95020	(7.915,34)	(1.042,79)

11. OHARRA DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Jarraian balantzean zein galdu irabazien kontuan, 2021 eta 2022 kontuetan jasotzen diren diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuen zenbatekoa eta mugimenduak jasotzen dira:

Sozioak ez diren hirugarrengeok emandako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		2021	2022
Kapital dirulaguntzak	96000	---	53.454,09
Galdu-irabazien kontuan egotzitako ustiapen-dirulaguntzak	96001	1.400,00	1.739,00
Ekitaldiko emaitzara transferitutako dirulaguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak	96001	---	215,66

Ekitaldi honetan, sozietateak 2.340,00 euroko ustiapen-dirulaguntza jaso du, Gipuzkoa Digitala-Datekin programaren barruan. Zenbateko horretatik, 1.739,00ko hasierako kuota kobratzen da ekitaldi honetan, eta 601ekoa 2023ko ekitaldian.

Ekitaldi honetan 50.000 euroko kapitaleko dirulaguntza jaso da, Hemaniko gaikako bilketan tokiko ekoizle handien biohondakinen saiikapena hobetzeko ibilgailu bat erosteko, 2023ko ekitaldian kobratuko dena, eta 3.669,75 euroko kapitaleko beste dirulaguntza bat, Industria Digitala proiektuaren barruan, zeinetatik 215,66 euro ekitaldiko emaitzara transferitzen baitira.

12. OHARRA TALDEKO ENPRESEKIN DIREN SALDOAK ETA TRANSAKZIOAK

Hauek izan dira ekitaldian zehar taldeko eta lotutako enpresekin burututako transakzioak.

2022ko ekitaldian:

	Salmentak	Zordun saldoa
Usurbilgo Udala	703.913,83	119.021,26
Hernaniko Udala	3.404.875,30	327.144,70
Astigarragako Udala	387.389,12	71.120,48

2021eko ekitaldian:

	Salmentak	Zordun saldoa
Usurbilgo Udala	656.492,98	179.486,06
Hernaniko Udala	3.076.624,85	538.009,08
Astigarragako Udala	214.776,59	66.933,46

Ondorengo ataletan loturaren arabera loturadun alderdiekiko eragiketen mugimenduen azalpena jasotzen da.

Jasotako mugimenduen ulermenerako ondorengo taulan mota honetako eragiketak eman diren pertsona edo enpresen identifikazioa errazten da, erlazioaren jatorria zehaztuz:

IFZ	Izena	Loturaren jatorria	Balorazioaren metodoa	Fakturazioa BEZ barne 2021	Fakturazioa BEZ barne 2022
B75024182	Garbitania Zero Zabor, S.M.				
P2007800B	Usurbilgo Udala	Zerbitzua	Prezio libre alderagarria	656.492,98	703.913,83
P2004300F	Hernaniko Udala	Zerbitzua	Prezio libre alderagarria	3.076.624,85	3.404.875,30
P200940I	Astigarragako Udala	Zerbitzua	Prezio libre alderagarria	214.776,59	387.389,12

	Entitate nagusia	Taldeko beste enpresak	Elkarrekin burututako negozioak enpresak negozioan parte denean	Elkartutako enpresak
	1	2	3	4
Zerbitzu prestazioa 2021	---	---	---	3.947.894,42
Zerbitzu prestazioa 2022	---	---	---	4.496.178,25

Aurreko taula jasotako informazioa modu erantsi edo bateratuan aurkeztu dira ez baitaude bere jatorri edo kopuruarengatik aipagarriak diren mugimendurik.

Sozietateko Administrazio Kontseiluko kide izateak ez dakar inolako ordainsaririk jasotzea karguan jarduteagatik.

13. OHARRA BESTE INFORMAZIOA

13.1. Batez besteko langile kopurua, kategorien arabera adierazita

Uneren batean alta emandako langileen batez bestekoa eta 2021eko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan izandako horien banaketa honako hau da:

Kategoriak		2021		2022	
		Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona
Gainontzeko zuzendaritza karguak: gerentzia eta zuzendaria	98001	1,00	0,38	1,00	0,84
Ingurumen Teknikoak	98002	0,50	1,00	1,00	---
Tekniko juridikoa	98003	1,00	---	1,14	0,50
Koordinatzaileak	98004	---	3,22	0,46	3,16
Informatzaileak	98005	4,88	1,03	5,41	1,90
Administrariak	98007	---	1,57	---	1,11
Gainontzeko lan-esku ez kualifikatua	98008	3,96	52,50	2,62	56,14
Guztira	98009	11,34	59,70	12,90	59,09
		71,04		75,28	

13.2. Balantzean ageri ez diren beste adostasunak

Bestetik, 2022an zehar langileen ordezkariekin elkarlanean 2022an zehar aplikagarria izango den "Barne lan-hitzarmena IX" onartu zen.

14. OHARRA INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dago bidezko aurreikuspenekin estali beharreko ingurumen alorreko arriskurik eta kosturik. Era berean, ez dago ingurumena babestearekin eta hobetzearekin lotzen den kontingentziarik irekita, ezta ingurumen-erloto etorkizuneko inbertsio konpromisorik, ingurumen-erloto erantzukizunik eta arlo horretan jasotzeko dauden konpentsaziorik ere.

15. OHARRA ARAU KONTABLE BERRIETARA EGOKITZEKO TRANTSIZIOTIK ERATORRITAKOAK

Ez dira aplikagarriak ekitaldi honetan.

16. OHARRA HORNITZAILEEI ORDAINKETA BURUTZERAKOAN EGINIKO ATZERAPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

2021eko abenduaren 31ko datan hornitzaileei ordaintzeke geratutako kopurua 92.572,07€takoa izan zen, horietatik 0,00€ dira ordainketa epea gauditua dutenak. Ordainketa epea batzaz beste 29,2 egunekoa izan da.

2022ko abenduaren 31ko datan hornitzaileei ordaintzeke geratutako kopurua 83.465,06€takoa izan zen, horietatik 0,00€ dira ordainketa epea gauditua dutenak. Ordainketa epea batzaz beste 27,23 egunekoa izan da.



ERANSKINAK

ETE-en Egoera Balantzea

IFZ: B75024182

Enpresa: GARBITANIA ZERO ZABOR, S.M.

AKTIBOA	2019	2020	2021	2022
A) AKTIBO EZ KORRONTEA	182.935,61	187.730,69	139.178,99	176.699,55
I. Ibilgetu ukiezina	9.501,53	24.425,62	24.867,43	42.566,36
II. Ibilgetu materiala	172.833,08	162.704,07	113.710,56	133.532,19
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	601,00	601,00	601,00	601,00
B) AKTIBO KORRONTEA	1.195.017,40	1.188.616,83	1.287.497,81	1.374.192,18
VI. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	326.677,46	555.328,62	785.093,08	567.364,91
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu emateengatik	46,47	---	---	---
a) Bezeroak epe luzeko salmentengatik eta zerbitzu emateengatik	---	---	---	---
b) Bezeroak epe laburreko salmentengatik eta zerbitzu emateengatik	46,47	---	---	---
2. Taldeko enpresekin diren saldoak eta transakzioak	314.810,76	547.736,08	784.428,60	517.286,44
3. Bestelako zordunak	3.347,61	---	68,09	50.078,57
4. Pertsonala	8.472,62	7.592,54	596,39	---
VII. Epe laburreko finantza inbertsioak	197.070,79	196.280,02	198.615,51	184.338,65
7. Ondare tresnak	186.455,79	185.665,02	185.600,51	173.723,65
8. Zorraren balore adierazleak	---	---	---	---
9. Bestelako aktibo finantzarioak	10.615,00	10.615,00	13.015,00	10.615,00
IX. Epe laburreko periodifikazioak	8.561,30	8.585,88	9.634,34	10.804,29
X. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	662.707,85	428.422,31	294.154,88	611.684,33
AKTIBOA GUZTIRA (A + B)	1.377.953,01	1.376.347,52	1.426.676,80	1.550.891,73

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2019	2020	2021	2022
A) ONDARE GARBIA	959.703,25	979.544,22	989.692,29	1.058.283,30
A-1) Fondo propioak	959.703,25	979.544,22	989.692,29	1.004.829,21
I. Kapitala	501.000,00	501.000,00	501.000,00	501.000,00
1.Kapitala eskrituratuta	501.000,00	501.000,00	501.000,00	501.000,00
III. Erreserbak	381.832,63	458.703,25	478.544,22	488.692,29
VII. Ekitaldiko emaitza	76.870,62	19.840,97	10.148,07	15.136,92
Galdu irabazien kontua (129)	76.870,62	19.840,97	10.148,07	15.136,92
A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	---	---	---	53.454,09
B) PASIBO EZ KORRONTEA	---	---	---	---
C) PASIBO KORRONTEA	418.249,76	396.803,30	436.984,51	492.608,43
III. Epe laburreko zorrak	9.298,65	11.304,90	11.304,90	6.619,42
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	408.951,11	385.498,40	425.679,61	485.989,01
2.Hornitzaileak	---	---	7.433,80	---
3.Hartzekodun batzuk	93.611,92	47.421,64	85.138,27	83.465,06
4.Pertsonala	159.047,57	172.345,20	149.239,95	184.486,80
6.Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	156.291,62	165.731,25	183.867,59	218.037,15
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)	1.377.953,01	1.376.347,52	1.426.676,80	1.550.891,73

ETE-en Galdu irabazien kontua

IFZ: B75024182

Enpresa: GARBITANIA ZERO ZABOR, S.M.

Deskribapena	2019	2020	2021	2022
A) ERAGIKETA JARRAITUAK				
1. Negozio zifraren zenbateko garbia	3.606.006,59	3.728.008,33	3.947.894,42	4.496.178,25
2. Produktu bukatuen eta fabrikazio-bideko produktuen izakinen aldakuntza	---	---	---	---
3. Enpresak bere aktiborako egindako lanak	---	---	---	---
4. Hornikuntzak	---	---	(783,35)	---
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	1.946,11	600,02	1.400,00	1.739,00
6. Pertsonal-gastuak	(2.672.223,12)	(2.859.312,60)	(3.024.417,75)	(3.418.752,23)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(801.471,65)	(777.902,40)	(849.852,55)	(1.008.652,46)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(63.512,80)	(70.452,93)	(55.841,95)	(42.671,55)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen egozpena	---	---	---	215,66
10. Hornidura-soberakinak	---	---	---	---
11. Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitza	---	---	---	---
12. Negozio-konbinazioetako diferentzia negatiboa	---	---	---	---
13. Bestelako emaitzak	54,63	(989,14)	(7.915,34)	(1.042,79)
A.1) USTIAPENENKO EMAITZA (1etik 13ra)	70.799,76	19.951,28	10.483,48	27.013,88
14. Sarrera finantzarioak	---	---	---	---
15. Gastu finantzarioak	(9,00)	(76,00)	(691,89)	---
16. Finantza-tresnen arazoizko balioaren aldakuntza	---	---	---	(11.922,21)
17. Kanbio-diferentziak	---	---	---	---
18. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak	6.079,86	(34,31)	356,48	45,25
19. Finantza-izaerako bestelako diru-sarrerak eta gastuak	---	---	---	---
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA (14+15+16+17+18+19)	6.070,86	(110,31)	(335,41)	(11.876,96)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA (A.1+A.2)	76.870,62	19.840,97	10.148,07	15.136,92
20. Mozkinen gaineko zergak	---	---	---	---
A.5) EKITALDIKO EMAITZA (A.3+20)	76.870,62	19.840,97	10.148,07	15.136,92

Ratio ekonomiko eta finantzarioak

Indize finantzarioak	
GARANTIA	3,1483
ZORPETZEA	0,4655
ERABILGARRITASUNA	2,7896
BIHURGARRIA	2,3935
LIKIDEZIA	1,2417
EBITDA	27.013,88
EBITDA/Salmentak	
Indize ekonomikoak	
ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOA	%1,7418
ERRENTAGARRITASUN FINANTZARIOA	%1,43032

2022ko amortizazioen xehetasuna

Elementua	2022 hasierako amortizazio metatua	2022ko amortizazioa
1	152.818,20	---
3	30.000,00	---
4	1.236,59	---
12	6.100,00	---
13	4.000,00	---
14	54.428,03	---
16	4.500,00	---
17	1.200,00	---
18	15.258,95	---
19	2.611,18	---
20	754,2	---
21	4.205,96	---
22	35.454,11	2.338,80
23	36.995,14	2.457,71
24	2.527,11	183,29
25	847,28	63,85
26	8.150,54	621,97
27	895,89	72,11
28	3.693,54	310,10
29	1.184,13	101,13
30	9.666,62	896,09
31	1.457,06	135,08
32	2.283,09	217,25
33	121,56	11,54
34	1.702,35	158,63
35	649,60	62,44
36	276,51	25,51
37	3.227,49	---
38	676,07	64,33
39	2.043,45	168,64
40	15.874,72	---
41	1.458,56	255,09
42	218,72	38,25
43	951,14	166,35
44	135.520,00	---
45	888,99	183,53
46	877,55	216,13
47	1.987,06	453,30
48	1.405,57	375,35
50	4.302,84	1.122,48
51	1.271,65	331,24
52	1.287,62	335,64
53	9.512,98	2.562,54
54	2.037,71	557,53
56	383,94	106,50
58	2.015,34	566,28
59	319,90	87,74

Elementua	2022 hasierako amortizazio metatua	2022ko amortizazioa
60	204,44	59,80
61	189,25	56,62
62	273,82	79,56
63	6.765,52	2.057,85
64	105,51	29,90
65	412,56	117,37
66	157,49	50,92
67	1.510,09	417,56
68	9.424,04	3.630,00
69	1.603,74	695,15
70	110,02	47,19
71	1.976,54	878,46
72	2.958,78	1.706,10
73	771,45	402,50
74	582,11	314,84
75	1.373,42	720,08
76	721,81	398,09
77	79,50	60,38
78	4.718,20	3.606,27
79	2.843,50	2.178,00
80	93,88	77,63
81	3.218,76	2.704,35
82	634,54	543,05
83	66,84	63,89
84	517,17	455,31
85	19,05	131,89
86	131,92	913,31
87	59,63	412,85
88	---	447,46
89	---	331,30
91	---	661,34
92	---	35,72
93	---	994,09
94	---	982,95
95	---	847,18
96	---	135,94
97	---	13,84
98	---	109,40
GUZTIRA	611.007,72	42.671,46

Sinadurak

Hernanin, 2023ko martxoaren 31n, bere onespena azaltzen dute euren sinadura emanaz:


ALDAYA OLASAGASTI, MARTÍN
N.A.N.: 15.951.740-K
Kontseiluko Idazkaria

A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Martín", written in a cursive style.

ARROZPIDE LANDA, AINHOA
N.A.N.: 35.772.585-H
Kontseiluko Lehendakaria

A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Ainhoa", written in a cursive style with a long horizontal stroke at the end.

URDANGARIN LASA, XABIER
N.A.N.: 33.776.200-E
Kontseilaria

A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Xabier", written in a cursive style with a large loop.

ETXEBERRIA TOLOSA, KORO
NAN: 15.935.386-C
Kontseilaria

A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Koro", written in a cursive style with a large loop.